

“Iruzur egitea da elikagai ekologikoak osasunarentzat eta ingurumenarentzat hobeak direla esatea”

Jose Miguel Mulet

Valentziako Unibertsitate
Politeknikoko irakaslea

Ez osasungarriagoak, ez zaporetsua-
goak, ingurumenari berdin-berdin
egiten diote kalte eta garestiagoak
dira. Halakoxeak dira nekazaritza
eta abeltzaintza ekologikoak ekoiz-
ten dituen produktuak, Jose Miguel
Mulet en arabera. Kimikako doktoa
da, irakasle aritzen da Valentziako
Unibertsitate Politeknikoan, eta iker-
keta zientifikoak oinarri hartuta mintzo
da horrela. Hark baieztatzen duenez,
ekoizpen industrialak ordezkatuko balu,
munduan bizi diren zazpi lagunetatik
bakarra elikatuko luke.

**Zuk esana da produktu ekologikoak
“aberaskumeentzat” direla. Zergatik?**
Europako nekazaritzaren % 5 eta 10
artean soilik da ekologikoa (Ingalate-
rrako Carlos printzea da ekoizle nagusia).
Espainian gutxi kontsumitzen dira,
eta erosteko ahalmen ertain-handia edo
handia dutenek erosten dituzte.

**Sektore horretakoek esaten dute beren
produktuak osasungarriagoak direla,
zapora gehiago dutela eta ingurume-
nari ez diotela egiten ohikoekin adinako
kalterik.** Ez, ez nago ados, eta Europako
Batasuna ere ez, eta hura da produktu
horientzat Europan dagoen agintaritzak
gorena. Bere webgunean esaten du ez
dagoela datu erabatekorik gai horietan.
Egindako ikerketa zientifiko guztiek
adierazten dute ohiko produktuen antze-
ko ezaugarriak dauzkatela osasuna-
rentzat.

Ordezka ditzakete ohiko sistemak? Mi-
la milioi pertsona elikatu ahal izan litezke-
te, onenean ere. Gainerako sei milioiak
gosez hiltzen dira edo lur gehiago be-
harko litzateke lantzeko; hau da, eremu
natural libreak suntsitu beharko lirateke.
Ekoizpen ekologikoa eskala txikikoa da,
eta kontsumitzaile gutxiarentzat. Eskala
handira eraman nahi izanda ere, muga
gaindiezinak dauzka.

**Eta ekoizle ekologikoak ohartzen al di-
ra “muga gaindiezin” horietaz?** Haiek
esaten dute gai izango liratekeela, baina
nola egingo luketen galdetuta, ez du-
te erantzun argirik ematen. Objektiboki
ezin da: nekazaritza-estatistiken datuek
diotenez, ekologikoki landatutako hektar-
rea bakoitzaren uzta ohiko nekazaritza-
rena baino % 25-50 txikiagoa da.

**Haien ustez, ordea, orokortuko balitz,
handitu egingo litzateke ekoizpena,
jende gehiagorengana iritsiko litzateke
eta merkeagoa izango litzateke.** Ez da
sinesgarria; abeltzaintza ekologikoan,
adibidez, izurriteak kontrolatzeko, ho-
meopatia edo akupuntura, edo albahaka
eta baratxuria gomendatzen dituzte, eta
ekoizpena erdira murriztuta. Hutssegite
kontzeptual batetik abiatzen dira: neka-
zaritza, berez, ez da ekologikoa, aldatu
egiten duelako lekua horretako bioaniz-
tasuna.

**Liburu bat argitaratu duzu, ‘Los pro-
ductos naturales ¡vaya timo!’ [Produk-
tu naturalak, a zer iruzurra!]. Engainatu
egiten al dituzte kontsumitzaileak?**
Osasunarentzat eta ingurumenarentzat
hobek direla esaten badiete, bai. Egiaz-
tatze ekologikoa gainditu dutela esaten
badiete, ez. Egiaztatze-agentzia bat da-
go: urtean behin pasatzen da, eta arau-
dia betetzen den edo ez esaten du.

Seguruak dira produktu ekologikoak?
Produktu ekologikoak eta ohikoak se-
gurtasun-araudi bera gainditu behar du-
te eta arrisku gutxi dute. Baina ekoizpen
ekologikoa atez atekoa izaten da, ba-
natzaile txikien bidezkoa, eta kontrolak
zailagoak dira. Proporzioan, Elikadura
Arloko Europako Agintaritzak (EFSA)
alarma gehiago ematen ditu ekoizpen
ekologikoarentzat, ohikoarentzat baino.

**Zenbait ikerketak frogatu dute ohiko
sisteman erabiltzen diren jokamolde
batzuek kalte larriak egiten dizkietela**

ingurumenari eta osasunari. Denbora
askoan astakeria handiak egin dira lur-
sailetan, batez ere zitokimikoekin. Baina
gaur egun gauza guztiek pasatu behar
dituzte kontrolak, duela 50 urte ez zeu-
denak. Ohiko nekazaritzak gero eta ge-
hiago errespetatzen du ingurumena, eta
are gehiago egingo du.

**Jokamolde horiek egoteak ez al die
arrazoi ematen ekoizle ekologistei?** Ez
nahitaez. Iaz arte, araudi ekologikoak
onartu egiten zituen kobregatzak (sal-
da bordelesa), eta oso kutsatzaileak
dira. Araudiak erreparatuko balio egiaz
ingurumen-eraginik ez duenari, eta ez
“naturala” edo “artifiziala” izateari, or-
duan ekologikoa izango litzateke.
Europako araudia negargarria da.

**Eta tokiko ekoizpenari lehentasuna
ematea, globalari ordez?** Ahal den neu-
rrian, bai. Europa gero eta gehiago dago
inportazioen mende. Baina gehiegike-
riarik gabe. Bakoitzak gure elikagaiak
ekoiztu behar bagenitu, Neolitara itzuliko
ginateke. Eta ez da zertan esplotazio
handiak deabrutu, zeren txikiak baino
hobeki erabiltzen baitituzte baliabideak
eta gutxiago kutsatzen baitute. Baratze
handia edukitzea komeni da, eta kontsu-
mitzailearengandik gertu egotea.

Zer iruditzen zaizkizu hiri-baratzeak?
Nik eduki nuen bat Suitzan ikasi nue-
nean. Hobby polita da. Irekiagoak egingo
litzateke hiriak, baina ez da etorkizuneko
elikadura-eredutzat hartzekoa. Eskala
handian, baliabide ugari alferrik galtzea
ekarriko luke, eta bi metro koadroko ba-
ratze batek ez du balio elikadura osatua
bermatzeko. Gainera, ziurtatu egin behar
litzateke lur hori ez dagoela kutsatua le-
henagoko industria-jardueraren batekin.

GEHIAGO JAKITEKO
www.consumer.es

